



DATUEN
ANALITIKA

BIG DATA, DATUAK vs INFORMAZIOA eta DATU ANALISIA

AURKIBIDEA

1. **Zer da Big Data?**
 - **Ezaugarriak**
 - **Adibidea**
2. **Datua vs Informazioa**
 - **Adibidea**
3. **¿Zer da datuen analisia?**
 - **Adibidea**

ZER DA BIG DATA?

- Makrodatuak
- Datuen inteligentzia

Bolumena

Abiadura

Barietatea

Aldakortasuna

Egiazkotasuna

Balioa

BIG DATAREN EZAUGARRIAK

- **Bolumena:** Datuen sorkuntza masiboa
- **Abiadura:** Azkartasuna datuak sortzeko, prozesatzeko eta analizatzeko
- **Barietatea:** Datu mota eta iturrien dibertsitatea
- **Aldakortasuna:** Datuen egituraren eta formatuaren arteko inkonsistentzia
- **Egiazkotasuna:** Datuaren kalitatearen eta fidagarritasunaren arteko erlazioa
- **Balioa:** Baliozko informazioa lortu

BIG DATA ADIBIDEA

- Ikus-entzuneke aplikazio eta plataformek datuak jasotzen dituzte: entzuten ditugun abestiak, kantitatea, generoa, autoreak, zein ordutan, zein maiztasunekin etab. (berdin pelikula edo telesailekin.)
- Milioika datu (Big Data) aztertzen dituzte gomendioak egiteko. Datu hauek milioika izango ez balira gomendioak ez lirateke hain zehatzak izango.

DATUA vs INFORMAZIOA

- **Datua:** tratatu eta erlazionatu dezakegun balore edo gertaera guztia da, prozesatu daitekeena.
- **Informazioa:** datuak tratatu eta prozesatu ondoren lortzen ditugun datu interpretatuak dira.

DATUAK vs INFORMAZIOA: ADIBIDE SINPLEAK


DATUA	INFORMAZIOA
“25”	“Egungo tenperatura 25 C°koa da”
“berdea”	“Semaforoa berdean dago”
“7,5”	“Bigarren mailako ikasleen batazbesteko nota 7,5 da”

DATUA vs INFORMAZIOA

DATUAK	INFORMAZIOA
Ikasleen emaitzen zerrenda	INFORMAZIOA ematen digu ikaslegoak izandako arrakasta edo porrotaren inguruan egindako lanaren arabera
Ikasleek ikasten ematen duten orduen kopurua (banaka)	

ZER DA DATUEN ANALISIA?

- Datu-multzoak **garbitu**, **aztertu** eta **interpretatzean** datza, **informazio** erabilgarria lortzeko eta **erabaki** informatuak hartzeko. Horrek patroiak, joerak edo datuen arteko erlazioak identifikatzea dakar prozesuak hobetzeko edo arazoak konpontzeko.

GARBITU

AZTERTU

INTERPRETATU

ERABAKIAK
HARTU

DATUEN ANALISIA ADIBIDEA

Enpresa batek, produktu konkretu baten salmentak handitu eta hobetu nahi ditu eta bezeroen erosketa esperientzia hobetu. Horretarako, bezeroen erosteko modua aztertuko datu analisiaren bidez.

DATUEN ANALISIA ADIBIDEA

- **Garbitu:** Bezeroen erosketa-datuak bildu eta datuak garbitu, akatsak edo hutsuneak konpontzeko
- **Aztertu:** Patroiak eta tendentziak aurkitzeko
- **Interpretatu:** Datuek zer esan nahi duten jakiteko. Zein galderei erantzuten die?
- **Erabakiak hartu:** Informazioa erabili salmentak handitzeko eta estrategiak sortzeko

Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Sailburuordetza. Lan honek Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko Baimena dauka (CC BY-NC-SA 4.0).

